

# SARRERA

DBH garaian oinarrizkoa da kontuan izatea duten aldaketa garaia eta taldeko erlazioek eta norberaren identitateen definizioak duten garrantzia. Gainera pentsamendu abstraktua garatzera eta praktikan jartzera bultzatzea.

Kutxa Ekogunera bisita egin aurretik eta ondoren, eskolak aukeratutako tailerraren osagarri diren unitate didaktikoak eskaintzen ditugu. Hauek sakontze saioak direla esan dezakegu, hau da, harrera eta itxierakoak. Saio hauek burutuko den jarduera berriarekin kokatzen laguntzeko beharrezkoak dira.

Eskolan hasita, etxean partekatuz eta Kutxa Ekogunearen arteko lotura sortuz, haurren hezkuntza komunitate guztia inplikatu dugu; hurrek ikasketa- prozesu esanguratsua izatea gure helburua delako.



## HIZKUNTZA EKOLOGIA

---

Hizkuntza guztien berdintasunetik abiatuta, hizkuntza bakoitzaren garapen jasangarria lortzea du helburu hizkuntza-ekologiak.

Ekologiaren ikuspegia hizkuntzetara ekartzen du hizkuntza-ekologiak eta hizkuntza aniztasuna kudeatzeko eta euskara biziberritzeko paradigma berri gisara planteatzen da.

### Hizkuntza Ekologia

[Galdera joko interaktibo](#) hau burutzera eta hausnartzera gonbidatzen da.

### Zergatik hizkuntzekiko kezka ekologiatik?

Ekologiaren kezka hizkuntzetara muin muinetik dator, garapen jasangarriaren definizio beraren baitan dago. Izan ere, garapen jasangarriaren hiru dimentsioak -ingurumena, gizarte eta ekonomia- bat egiten duten eremua izango da soilik, garapen eredu jasangarria. Gizarte edo dimentsio soziokulturalaren muinean kokatzen da hizkuntza eta munduko hizkuntzen garapen jasangarria helburu duen garapen eredu irudikatzen du espiralak.

Egungo krisia ekonomiko-finantzieroaz gain, ezberdintasun sozial gero eta handiagoen krisia, krisi energetikoa eta klimatikoa, bioaniztasun krisia, elikadura krisian murgilduta gauden honetan, hizkuntzen krisia ere badugu.

Egungo krisi globalaren alternatiba gisa, KULTURA eta HIZKUNTZA jasangarritasun ereduaren erdigunean kokatu behar ditugu.



## Zergatik hizkuntza-ekologia Kutxa Ekogunean?

Kultura eta hizkuntza-aniztasuna Estrategiako lan-ildoak da Hizkuntza-ekologia. Kutxa Ekogunearen helburua KULTURA EKOLOGIKOA bultzatzea izanik, gure hizkuntza-ekologia lan-ildoak IKUSPEGI, JAKINTZA eta PRAKTIKA ekologikoak hizkuntzeta ekartzea proposatzen du.

Horretarako, euskararen eremuan eta hizkuntza aniztasunean, euskaraz kalitatez bizitzeko hizkuntza praktika ekologikoak bultzatzen ditugu.

## Esteka interesgarriak

- [Euskararen Ginkana](#). Euskaraz eta euskararekin dibertitzeko lehiaketa. Euskal Herri mailan eta herri eta eskualdeetan.
- [Hitzahartu](#), Hizkuntza-ekologia gunea.
- [Hizkuntza-ekologia jardunaldiak](#)
- [Hizkuntza-ekologia ibilbideak](#) naturguneetan.